



Juan Maria Uriarte Donostiak Gotzaiak Hernani eta bertako kristau elkarteak ezagutuko ditu. (Arg: Jon Urbe Argazki Press).

Juan Maria Uriarte Gotzaia Hernanin izango da aste honetan, bisita Pastorallean

■ Hernani eta herriko kristau elkarteak gertutik ezagutu, eta aurrera begirako lanaren pausoak finkatzea da bisitaren helburua ■ 25 urte dira azkenekoz Gotzai batek Hernanira bisita Pastorallean egiten duela.

JUAN Maria Uriarte Donostiako Gotzaia bisita Pastorallean etorriko da Hernanira ostegunetik igandera, herria eta bertako kristau elkarteak bertatik ezagutzera. Hernaniko leku eta parajeak ezagutzeaz gain, Goizaiak zenbait bilera egingo ditu hiru parrokiatako kontseiluekin eta bisita pertsonalak ere hartuko ditu larunbatean.

Horretaz gain, Gotzaiaren bisita jasoko dute Famili Santuaren Misiolariek, herriko gaixorik zaharrenek, Sandiusterriko Zaharren Egoi-

tzak eta Inmaculada Ikas-tetxeak.

Juan Maria Uriartek Agustinatoko konbentua berritzeko obra nola dijoazen ere ikusiko du.

“Gurekin egon nahi du”

Hernaniko Elizbarrutiaren hitzetan, Joan Mari Uriartek “herri eta herritarrok ezagutu nahi gaitu” eta horrexegatik dator Hernanira: “Gure kristau elkarteak gertutik ezagutu eta gurekin egon nahi du. Ditugun kezak, zalantzak, gurekin elkarbanatu nahi

BISITA PERTSONALAK

Uriarte Gotzaiak bisita pertsonalak hartuko Elizako bulegoetan, larunbat arratsaldean. Hitz egin nahi duenak aldeaz aurretik adierazi: ☎ 943 552684 eta 943 556059.

ditu, eta bereziki etorkizunera begira eman beharreko pausoak. Horrekin batera, Elizbarrutiak adierazi du Gotzaiak gehiena sufritzen

ari direnengana hurbildu nahi duela eta bisita Pastoralaren bidez “gure kristau sinestuen aurrera egin dezagun animatu nahi gaitu” dio.

Meza hiru Parrokietan, larunbatean eta igandean
Donostiako Gotzaiak Meza Nagusia emango du Ereñotzu, Florida eta Juan Bataiatzailea parrokiatan. Ereñotzun, larunbatean emango du arratsaldeko 19:00etan. Juan Bataiatzailean, igandean 11:00etan emango du, eta Floridan 12:30etan. □

Balantxako bidea itxita gaurtik aurrera

BALANTXAKO aldapako karretera itxita egongo da hemendik aurrera. Balantxan etxe berriak egingo dituzte eta obra iraun arte karretera itxi egingo dute astean zehar. Beraz, astebukaeretan irekita egongo da. □

■ ERRUBIA

Aurreneko taldeak irabazi baina ez zen gustora geratu

HERNANIKO aurreneko taldeak 5 eta 48 irabazi zuen Atletikoren kontra. Hernani klasifikatuta dago igora faserako eta ligan falta zaizkion partiduak entrenamendu bezala erabiltzen ari da. Taldeko arduradunak ez ziren gustora geratu atzo Hernanik Aieten egindako jokorekin eta adierazi dute gauza asko hobetu behar direla promozioa jokatzeke. □

■ FUTBOLA

Gorengo mailan Hernanik 0-2 galdu zuen Zarautzen kontra

HERNANIK 0 eta 2 galdu zuen atzo Zarautzen kontra jokatutako partiduan. Hernanik jokalaria bat gutxiagorekin aritu zen 20garren minututik aurrera, bi tarjeta atera zizkieten-eta jokalaria bati. Horretaz gain, futbol taldeko arduradunak adierazi dute etxean jolastu ezin izanak ez diola ekipoari batere laguntzen. Izan ere, Zupibe ez dago oraindik ere jokatzeke kondiziotan. Hurrengo partidurako Zupibe prest egotea espero dute. □

Irakasle bat behar da

akademia batean

DBHkoei klaseak emateko

☎ 943 336090

HATOR
Asesoría
HATOR
Asesoría

HATOR
Asesoría

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

Kardaberaz 60
Tel.: 943 55 43 12
20120 Hernani

GSE

Lan aholkularitza

Fiskala
Kontablea

Tel.: 943 550254
Faxa: 943 335801
Atzieta 51 - behea 20120 Hernani

Catalana Occidente

Aseguruak

Bautista Biurrarena Etxegoien

Kardaberaz 40 - behea
Tel.: 943 332440
Faxa: 943 556602
Mobila: 610 292701
20120 Hernani

GARAYAR AUTOBUSAK

Autobus zerbitzua
Linea erregularrak

Zerbitzu diskrezionalak
(ESKOLARRAK)

Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain

Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 Hernani (Gipuzkoa)



Eskubian, Aurrera taldeko kideak pailazoz jantzita. Ezkerretara, Langile ikastola Biteriko eskolako gogoratuz.

Konpartsak kalean barrena giro ederrean

■ Inmaculada ikastetxeko konpartsa ez zen gainerantzekoekin atera, dolua dela-eta ■ Gaur, Azeri dantza, buruhaundiak eta haurrentzako emanaldiak izango dira.

KONPARTSAK izan ziren atzo inauterietako protagonista nagusiak. Guztira bost konpartsa atera ziren eta jendetza inguratu zen bost taldeek eskeinitako ikuskizuna gozatzerako. Hala ere, izan zen hutsunerik, Inmaculada ikastetxea ez baita inauterietako ekitaldietan parte hartzen ari Iban Rodrighez ikaslearen heriotza dela-eta.

Konpartsetan Aurrera taldea izan zen, aurtengo inauterietan omendu dutena ezindu psikikoen alde egindako lanagatik eta inauterietan urteetan parte hartzeagatik. Aurrerako kideak pailazoz jantzi ziren eta *Paristik datorren artista bat naiz ni...* kantatuz alaitu zuten giroa. Beste

konpartsak izan ziren: Langile ikastola, Biteriko eskola zaharrak gogoratuz; Elizatxo ikastolako txorimaloak; Ttarla dantza taldeko loreak eta aurtengo karroza berria, Unai taldearena, *El Señor de los Anillos*-i buruzko traktorean.

Gaur ere inauteriak
Gaur ere festak jarraitzen du: 9:00etan Diana izango da, 10:00etan Azeri dantza, 12:00etan pailazoak Biterin, 16:00etan buruhaundiak eta 17:00etan *Klaketa* ikuskizuna. Bihar sardinaren entieroarekin bukatuko da jaia. □



Aurtengo karroza berria, 'El Señor de los Anillos' i buruzkoa



Eskubian Elizatxo ikastolako txorimaloak. Ezkerretara, Ttarla dantza taldeko loreak eta lorazainak.

KIROLA			ASTEBURUKO EMAITZAK		
FUTBOLA	Taldeak	Emaitzak	PELOTA		Emaitzak
Goren.	Hernani-Zarautz	0-2	Udaberri Txapelketa		
Emakum.	A tse denalia		Jubenilak	Huiz-Zumutza / Kaskio	15-22
Gaz. Eusk.	Bem eo Hernani	1-2	Gipuzkoako Txapelketa		
Gazteak 1	Hernani A Hapetanak	0-0	Trinkete, kad	M uñoz / Apeztebrea	30-10
Kad, O hor	A tse denalia		Trinkete, jub	Ezeiza II / Zabala	35-27
Kadeteak 1	Hernani Tobsa	1-1	Trinketea	Beasana / Izustabamena	40-18
Haur. O hor	A tse denalia		Euskal Herriko Txapelketa		
Haur. 1	A tse denalia		Jubenilak	Jaurregi Lucas / Gena Lujanb	30-18
ERRUGBIA			Nagusiak	Lagunarte M anztia or M arthez	12-30
1 Autono	A tteko Hernani	05-48	Eskuz. Kadeteak	Kuzene A / Zpiarte	22-10
Jub. Euskal	Hernani Independiente	53-07	XAKEA		
Kad. Euskal	Hernani Independiente	49-07	Gipuzkoa 1	Hernani A - G ross E	3-3 1/2
WATERPOLOA			Gipuzkoa 2	Hernani B - Fortuna B	1/2-3 1/2
Eusk M util.	Leba-Hernani A	04-05			

HITZ BITAN



AEKko ikasle eta irakasleak ttuntturroa egiten.

✓ AEK

Euskal inauteriak ospatu dituzte AEKn. AEK euskaltegian euskal inauteriak ospatu dituzte. Euskal inauterietako pertsoniak ezagutzeaz gain euskal inauterietan hain ezaguna den ttuntturroa egin zuten eta Lantzeko inauterietako dantza ikasi zuten. Ikasitako guztia praktikan jartzeko lehiaketa bat egin zuten talde probak eginez eta galderak erantzunez.

✓ WATERPOLOA

Hernanik 4-5 irabazi zuen Leioaren kontra. Hernanik 4 eta 5 irabazi zuen Leioan jokaturako partidu gorabeheratsuan. Hala ere, taldea gustora dago lehen mailara igotzeko pauso berri bat eman duelako ekiptoak.

✓ TXANTXANGORRI

Mus txapelketa. Aste honetan ere Txantxangorri elkarte-ko mus txapelketako partiduak jokatu dira. Gaur: F. Galan/J.M. Ormazabal eta Bixente Goñi/Juan Otaegi; asteartea 24, M. Loinaz/Pablo Ruiz eta B. Goikoetxea/Joxe Etxarri; asteazkena 25, Carlos Lopez/Luis Garaiyar eta Monroi II/Daniel Carrera; osteguna 26, J.M. Goikoetxea/Migel Montenegro.

✓ MENDIRIZ MENDI

Trabesiako eski ikastaroan interesa dutenek bilera gaur Trabesiako eski ikastaroan interesaturik daudenak bilera egingo dute gaur arratsaldeko 20:00etan Mendiriz Mendiko lekuan, Iturregi plazan. Ikastaroan izena emateko epea bihar bukatuko da eta izena emateko lokaletik pasa behar da arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoak: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
- ▶ Gaez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia, ...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Pisua salgai Elkano kalean. 3 logela, sukaldea, sala, komona, trastero txikia... Erabat amueblatua. Prezioa: 222.375 euro. Deitu: 699 46 14 90

Sagastialden 50m2ko pisua salgai. Kanpokaldera, 2 gela, sukaldea, komona, jangela-sala. Agentziek ez deitu. Tel: 630 78 24 62

Etxea salgai Latxunbeberin. Ezin hobeto. 105 m2 erabilgarri + terraza 30 m + jardina 60 m + trasteroa 12 m2. 55.500.000 pta. Garaje itxia 3.300.000 pta. Tel: 651 70 88 84

MINER
JANARIDENDA
Denda ixten
dugu.
Likidazioak otsailaren
20tik aurrera.

Hainbat tresna salgai:
- Mural frigorifikoa
(motorra kanpoan dagoena)
- Arko Konjeladore bat
- Kortadora
- 2 pixu (1000 FLU memoriarekin)
- Zintzilikatzen den pixua
- Estanteriak egurrez, ispilua eta argiarekin eta normale argiarekin

INFORMAZIO GEHIAGO
943 55 01 36 - 699 82 91 98

ETXE ONENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK

"OBLATOS" ETAN
SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37